

ARGIBIDEAK 2021KO ASTE SANTUKO OSPAKIZUNETARAKO

Bilbao, 2021.eko martxoaren 12a

Pandemiak eraginda bizi dogun egoera eta osasunaren arloan indarrean dagozan neurriak kontuan hartuta, eta Espainiako Gotzainen Batzarraren oharrari jaramon eginez, ondorengo argibideok eskaini gura doguz aurtengo Aste Santuko ospakizunak prestatzeko.

Ondorengo honeek kontuan hartuko dira ospakizun guztietarako:

- 1) Bertan behera geratzen dira bide publikoko ekitaldiak (prozesinoak, irudien lekualdaketa, e.a.). Kofradia eta Ermandadeek indarrean dagozan neurriak kontuan hartuko dabezan beste aukera batzuk eskainiko dabez.
- 2) Ospakizun eta eleizkizunak gehienez ere 21:00etan amaituko dira (etxeratze-agindua 22:00etan). Aurton, kontuan hartu hori ospakizunen hasiera programatzean. Kontuan izan, etxeratze-aginduaren ordua zein jente-kopurua aldatu egin daitezkeza hemendik Aste Santuraino.
- 3) Prebentzino-neurriak bete behar doguz:
 - a. Jente-kopuru mugatua: guztira sartu daiteken jente-kopuruaren %35a eleizkizun guztietan, osasun arloko agintariek neurria aldatzen ez badabe.
 - b. Esku-hartzen daben ministroen –akolitoak, irakurleak, e.a.- kopurua ahalik eta txikiena izan daitela, baina ospakizunaren duintasunari uko egin barik.
 - c. Maskara denpora guztian jarrita euki eta hitz egiteko kendu bakarrik (pertsonek arteko tartea egokia bada) edo jaunartzeko unean.
 - d. Eleiza barruan lagun arteko tartea gorde..
 - e. Eskuak gel hidroalkoholikoekin desinfektatu eleizara sartzean eta eleizatik urteteen.
 - f. Lekuak garbitu, aireztatu eta desinfektatu.
 - g. Ez erabili eskuz esku ibili daiteken materialik (abestien orriak, liburuxkak, kandelak, e.a.
 - h. Aparteko arreta jarri dirua batzean; saskia eskuz esku ez erabili.
 - i. Jentea ez daitela pilatu eta lau lagun baino ez daitela batu sarrera eta urteeretan.
 - j. Ospakizunetan, indarrean jarraitzen dabe bakeari eta jaunartzeari buruzko arauak. Jaunartzeko buruz buruko alkarrizketa ("Kristoren Gorputza". "Amen"), guztientzat esango da behin "Jauna ni ez naz inor..." erantzunaren ostean eta Eukaristia isilik banatuko da.

ERRAMU-DOMEKEA

1. Ez da prozesinorik egingo.
2. Katedralean, sarrera solemne edo nagusia, gitxienez meza nagusian egingo da. Fededunak euren lekuetan egongo dira eta bedeinkapena eta barri onaren hots egitea, eleiza barruan egingo da, fededunei ohikunea ikusteko aukera emonez. Altararako prozesinoan, fededunen ordezkaritza batek parte hartu leike Gotzainagaz eta ministroakaz batera.
3. Parrokia eta gainerako kultu-etxeetan, hirugarren era (sarrera bakuna) erabiliko da.

KRISMA-MEZA

Ministroak, meza emongo daben abadeak eta diakonoak:

1. Goizeko 10:45 baino lehen helduko dira Katedraleko klaustrora eta alba eta estola zuria eroango dabez (pandemia aldi honetan, oso garrantzitsua da bakotxak berea eroatea). Krisma-meza, 11:00etan hasiko da.
2. Katedraleko ate nagusitik sartuko dira guztiak, aforoa dala-eta (guztira 175 lagun) zenbatu ahal izateko. Klaustrora joango dira eleiz jantziak jartera.
3. 11:45etatik aurrera, meza emongo daben abadeak eta diakonoak altararen ezker eta eskumatara dagozan aukietara (gorriak) joango dira.

ORIO SANTUAK JASO

Ospakizunaren amaieran, ilara bakarra egingo da klaustroaren inguruan, Orio Santuak era antolatuan jasoteko. Lagun arteko ezinbesteko tartea gordeko da. Egun horretan, Bilbotik kanpokoek jaso daiezala gomendatzen da. Bilboko alkarteek (eta gura daben guztiek) Pazko-bigarrenetik aurrera jaso daikiez, ordutegi honeetan: astelehen, eguen, bariku eta zapatuz, 10:00etatik 13:00era. Arratsalde guztietan, 17:00etatik 18:30etara.

JAUNAREN AFARIKO MEZA

1. Ez da oinak garbitzearen erritua egingo.
2. Ez kendu prozesinoa eta Sakramentu Guztiz Santua gordetzea gurtzeko eta biharamunean jaunartzeko. Emon aukera, ahal izan ezker, fededunek adorazioa egin daien.
3. Eleiza berean Jaunaren Afariko meza bat baino gehiago ospatuko bada, arratsaldez egin eta, azkenean izan ezik, ez egin Sakramentu Guztiz Santuaren gordetzerik.

JAUNAREN NEKALDIKO OSPAKIZUNA

1. Jaunaren Nekaldiko ospakizunean, Jainkoaren herriaren otoitzean, ohiko eskaerak egingo dira, Jainko Gurtzarako eta Sakramentuen Diziplinarako Kongregazioak joan dan urtean argitaratu eban asmoa (Agindua Prot. 155/20 zenb.) gehituz. IX. eta X.aren artean gehitzen dan asmoaren testua hauxe da:

IXb. Pandemia aldian sufritzen dagozanen alde

Egin daigun otoitz pandemia honen ondorioak jasaten diharduen guztien alde:

Aita Jainkoak
osasuna emon deien gaixoei, sendotasuna osasun-langileei,
kontsolamendua familiei eta salbazinoa hil diran biktima guztiei.

Otoitza isilik. Gero abadeak esango dau:

Jainko ahalguztidun eta betikoa,
babesle bardingabea giza gaixotasunean,
begiratu errukiz pandemia hau jasaten daben
zure seme-alaben atsekabeari;
arindu gaixoen samina,
emon indarra euren zaintzaileei,
hartu zeure bakean hil diranak
eta, egizu,
estualdi honek irauten dauan bitartean,
guztiek aurkitu daiela gozagarria
zure errukian.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.
R./ Amen.

2. Kurutzea gurtzeko unean, ospatzaileak belaunikatuz edo burua sakon makurtuz egingo dau. Gainerakoek be belaunikatuz edo burua sakon makurtuz egingo dabe kurutzea erakusten danean, eta bakotzak dagoan lekuan egingo dau, mobidu barik. Isilik, kurutzea begiesten dan bitartean, otoitz egin daiela esango jake. Dana dala, ospakizuneko une honetan, ez da prozesinorik egingo.

PAZKO BEZPERAKO OSPAKIZUNA

1. Beila edo "luzernarioaren" hasiera, eleizaren sarreran egin daiteke. Ospatzaile nagusiaren ondoan, ministro-kopuru mugatua egongo da eta fededunak euren lekuetan izango dira. Sua bedeinkatu, prestaketa-ohikuneak egin eta Pazko-zuzia biztuko da Meza-liburuan jasoten dan lez.
 - a. Abade eta ministroek, alkarren arteko segurtasun-tartea gordeaz, prozesinoa egingo dabe erdiko pasillotik eta "Kristoren Argia" abestuko dau hiru bider.
 - b. Ez da komeni fededunen artean kandelarik banatzea Pazko-zuzitik biztu eta alkarri argia emoteko. "Kristoren Argia" hiru bider abestu ondoren, Pazko-pregoa abestuko da.
2. Ondoren, "Hitzaren liturgia" dator. Laburtze aldera, irakurgaien kopurua laburtu daiteke, baina ospakizunaren une honi dagokion nabarmentasuna emoten saiatu behar dogu. Ez da sekula murriztuko domeka bateko Hitzaren Liturgiara, hau da, bakarrik hiru irakurgai itziz.
3. "Bateo-liturgia", Meza-liburuan jasoten dan lez ospatuko da. Abadeak eskuak garbituko ditu bedeinkatuko dan ura prestatu aurretik eta uraz txipriztindu aurretik.



4. Ez dau gomendagarri emoten, bizi dogun egoera kontuan hartuta, Pazko bezperako ospakizunean umeen bateoa ospatzeak. Helduei Kristau Sarbideko sakramentuak emon behar bajakez edo azkenean umeren baten bateoa ospatzen bada, bateo-ura, erabili ondoren ura itzuliko ez dan ontzira isuriko da.

BIKARITZA NAGUSIA

INDICACIONES PARA LAS CELEBRACIONES DE SEMANA SANTA DE 2021

Bilbao, 12 de marzo de 2021

En las actuales circunstancias de pandemia, teniendo en cuenta las normas sanitarias vigentes a esta fecha y atendiendo a la nota de la Conferencia Episcopal, se ofrecen las siguientes indicaciones para preparar las celebraciones de la Semana Santa del presente año.

Para todas las celebraciones se atenderá a lo siguiente:

- 1) Se suspenden de actos en la vía pública (procesiones, traslado de imágenes, etc.). Las Cofradías y Hermandades ofrecerán alternativas en las que tendrán en cuenta las medidas vigentes.
- 2) Se finalizarán las celebraciones y actos de culto como mucho a las 21 horas (toque de queda a las 22 horas). Se tendrá en cuenta a la hora de programar este año la hora de inicio de las celebraciones. Ténganse en cuenta que tanto la hora del toque de queda como el aforo podría cambiar desde esta fecha hasta la Semana Santa.
- 3) Se han de respetar las medidas de prevención:
 - a. Limitación de aforo: 35% de aforo en todas las actividades de culto que se celebren, salvo cambio de las autoridades sanitarias en la medida.
 - b. Reducir al mínimo necesario el número de ministros que intervienen –acólitos, lectores, etc.–, sin que ello desdiga de la dignidad de la celebración.
 - c. Utilización de mascarillas en todo momento, excepto en el uso de la palabra (si las distancias lo permiten) y en el momento de la comunión.
 - d. Mantenimiento de la distancia interpersonal en el interior de los templos.
 - e. Desinfección de manos con geles hidroalcohólicos a la entrada y salida del templo.
 - f. Limpieza, ventilación y desinfección de espacios.
 - g. Evitar los materiales de uso compartido (hojas de canto, folletos, velas, etc.).
 - h. Especial precaución en las colectas, evitando el paso del cestillo de mano en mano.
 - i. Evitar aglomeraciones de personas y de más de 4 personas en entradas y salidas.
 - j. Durante las celebraciones siguen vigentes las normas respecto a la paz y a la comunión. El diálogo individual de la comunión (“El Cuerpo de Cristo”. “Amén”), se pronunciará de forma colectiva después de la respuesta “Señor no soy digno...”, distribuyéndose la Eucaristía en silencio.

DOMINGO DE RAMOS

1. Se evitarán las procesiones.
2. En la catedral se utilizará la entrada solemne al menos en la misa principal. Los fieles permanecerán en sus lugares y se hará la bendición y la proclamación del evangelio desde un lugar, dentro de la iglesia, en el que los fieles puedan ver el rito. En la procesión al altar puede participar una representación de los fieles junto con el Obispo y los ministros.
3. En las parroquias y demás lugares de culto se utilizará la forma tercera (entrada simple).

MISA CRISMAL

Los diferentes ministros, concelebrantes y diáconos:

1. Deberán estar en el Claustro de la Catedral antes de las 10:45 h., provistos de alba y estola blancas (en este tiempo de pandemia es muy importante que cada uno traiga la suya). La Misa Crismal comenzará a las 11 h.
2. Todos entrarán por la puerta principal de la Catedral, a fin de ser contados por razón del aforo (un total de 175 personas). Se dirigirán al Claustro donde se revestirán con los ornamentos litúrgicos.
3. A partir de las 10:45 h, los sacerdotes concelebrantes y diáconos, irán a ocupar sus asientos a izquierda y derecha del presbiterio, (sillas rojas).

RECOGIDA DE LOS SANTOS ÓLEOS

Al término de la Celebración, se organizará una única fila alrededor del Claustro para poder retirar los Santos Óleos, de forma ordenada. Habrá que guardar la distancia recomendada. Es aconsejable que en este día los recojan solo quienes se acercan fuera de Bilbao. Las comunidades de Bilbao, (también quienes lo deseen) podrán retirarlos a partir del Lunes de Pascua en el siguiente horario:

Lunes, jueves, viernes y sábado de 10:00 a 13:00 h.

Todas las tardes de 17:00 a 18:30 h

MISA DE LA CENA DEL SEÑOR

1. Ha de omitirse el rito del lavatorio de los pies.
2. No se omita la procesión y la reserva del Santísimo Sacramento para la adoración y la comunión al día siguiente. Facilítese, en la medida de lo posible, que los fieles puedan dedicar un tiempo de adoración.
3. Si se van a celebrar varias Misas de la Cena del Señor en la misma iglesia, háganse siempre por la tarde, y omítase, salvo en la última, la reserva solemne del Santísimo.

CELEBRACIÓN DE LA PASIÓN DEL SEÑOR

1. En la celebración de la Pasión del Señor, en la oración universal se utilizará el formulario habitual con el añadido de la intención especial que la Congregación para el Culto Divino y la Disciplina de los Sacramentos publicó el pasado año (Decreto Prot. N. 155/20). El texto de la intención, que se añade entre la IX y la X, es el siguiente:

IXb. Por quienes sufren en tiempo de pandemia

Oremos también por todos los que sufren las consecuencias de la pandemia actual:
para que Dios Padre
conceda la salud a los enfermos, fortaleza al personal sanitario,
consuelo a las familias y la salvación a todas las víctimas que han muerto.

Oración en silencio. Prosigue el sacerdote:

Dios todopoderoso y eterno,
singular protector en la enfermedad humana,
mira compasivo la aflicción de tus hijos
que padecen esta pandemia;
alivia el dolor de los enfermos,
da fuerza a quienes los cuidan,
acoge en tu paz a los que han muerto
y, mientras dura esta tribulación,
haz que todos
puedan encontrar alivio en tu misericordia.
Por Jesucristo, nuestro Señor.
R. Amén.

2. En el momento de la adoración de la cruz el celebrante lo hará con una genuflexión o una inclinación profunda. El resto de la asamblea lo hará por medio de una genuflexión o inclinación profunda cuando la cruz sea mostrada, y lo harán cada uno sin moverse de su lugar. Se podría invitar también a que hagan un momento de oración, en silencio, mientras se contempla la cruz. Se evitará, en cualquier caso, la procesión de los fieles en este momento de la celebración.

VIGILIA PASCUAL

1. El inicio de la vigilia o "lucernario" se puede hacer a la entrada del templo. El celebrante principal deberá estar acompañado por un número limitado de ministros, mientras todos los fieles se mantendrán en sus lugares. Se bendice el fuego, se hacen los ritos de preparación y se enciende el cirio tal como indica el Misal.
 - a. El sacerdote y los ministros, manteniendo la distancia de seguridad, hacen la procesión por el pasillo central y se cantan las tres invocaciones "Luz de Cristo".
 - b. No es recomendable repartir entre los fieles las velas y que las vayan encendiendo del cirio y luego pasen la luz unos a otros. Después de las invocaciones se canta el Pregón Pascual.
2. Sigue la "Liturgia de la palabra". Por razones de brevedad puede acortarse el número de las lecturas, pero procúrese darle la relevancia adecuada a este momento de la celebración. En

ningún caso se debería reducir a una Liturgia de la Palabra normal de un domingo, únicamente con tres lecturas.

3. La "Liturgia bautismal" se celebra tal y como viene indicada en el Misal. El sacerdote debe lavarse las manos antes de preparar el agua que se va a bendecir y antes de la aspersion.
4. No parece aconsejable, dadas las circunstancias, celebrar el bautismo de niños durante la Vigilia Pascual. Si se han de administrar los sacramentos de la Iniciación Cristiana a adultos o si al final se celebra el bautismo de algún niño, la administración del agua bautismal hágase en un recipiente al que no retorne el agua utilizada. En las unciones se puede utilizar un algodón o bastoncillo de un solo uso, incinerándose al terminar la celebración.

VICARÍA GENERAL